	Urriaren 8an –igandea–, 11:00etatik 13:00etara.	Domingo 8 de octubre, de 11:00 a 13:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Udala eta Geotxiki - Ayuntamiento de Getxo y Geotxiki.		
	677170921 – geotxiki@hotmail.com	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

## GETXO GETXOKO INGURUMEN ARETOA



	Gaztelania.	Castellano.
	Bolueko hezegunea.	Humedal de Bolue.
	Urriaren 21ean, 11:00etatik 13:00etara.	21 de octubre, de 11:00 a 13:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Ingurumen Aretoa - Aula Ambiental de Getxo.		
	688883596 edo info@ingurumenaretoagetxo.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

### KONDAIRAZKO BASELIZA

#### Ibilbide gidatua jende guztiarentzat

Hainbat kondaira dago Getxo udalerriaz, eta mendez mende, belauadiz belaualdiz, transmititu den ahozko ondarearen parte dira. Horieta kondaira bat Errotaetxeko Santa Koloma baselizaren eraikuntzarekin dago lotuta. Eraikin berezia da, Berangoko mugan dago, eta Errotaetxe baserriarena izan zen; izan ere, baserri hori, baseliza eta errota jabetza bera ziren. Ibilbide gidatuaren eskutik, haren sorrerari eta Santa Kolomari buruzko kondairazko istorioa ezagutaraziko da, baita XX. mendearen erdialdera arte inguruetan egon zen errota-industriarekin zerikusia duten ezagutzak eta jakintzak ere.

### UNA ERMITA DE LEYENDA

#### Itinerario guiado para todos los públicos

Existen distintas leyendas en torno al municipio de Getxo, las cuales forman parte de ese patrimonio oral que las distintas generaciones se han transmitido a lo largo de los siglos. Una de ellas está relacionada con la construcción de la ermita de Santa Coloma de Rotaetxe, una singular construcción en el límite con Berango que perteneció al caserío Errotaetxe, formando el caserío, la ermita y el molino una única propiedad. Durante este itinerario guiado se dará a conocer la legendaria historia que existe en torno a su fundación y a Santa Coloma, así como distintos conocimientos y saberes relacionados con la desaparecida industria molinera de la zona, presente en Getxo hasta mediados del siglo XX.

## GETXO TURISMO BULEGOA-OFICINA DE TURISMO



	Gaztelania.	Castellano.
	Benta (Ángel etorbidea 33).	La Venta (Avda. del Ángel, 33).
	Urriaren 8an eta 15ean –igandeak–, 11:30etik 13:00etara; 20an –ostirala–, 12:00etatik 13:30era.	Domingos 8 y 15 de octubre de 11:30 a 13:00 h.; viernes 20 de octubre de 12:00 a 13:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Turismo-bulegoa - Oficina de turismo de Getxo		
	94 491 08 00 - infoturismo@getxo.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

### GETXO JATORRIETATIK (HILETA ERRITUAK)

#### Bisitaldi gidatua

Getxoko hilerrian barrera egingo dugun bisitaldi gidatuaren eskutik jakingo dugu euskal tradizioan oso lotura hertsia dagoela bizitzaren eta heriotzaren artean: jaio egiten gara, bizi izaten gara eta hil egiten gara, eta, edonola, bizitzak etxean ehortzita geratzen dira. XIII. mendetik XVIII. mendera bitartean, hildakoak elizen barruan ehortzi ohi ziren, eta, segida tradizionalari eusteko, familia bakoitzak bere ehortzokia zuen elizan jarkelua izeneko lekuan.

### GETXO DESDE LOS ORÍGENES (LOS RITOS FUNERARIOS)

#### Visita guiada

Durante esta visita guiada por el cementerio de Getxo conoceremos que en la tradición vasca hay una relación muy familiar entre la vida y la muerte: se nace, se vive, se muere y de alguna manera quedan enterradas las vidas en el hogar (etxe). Entre los siglos XIII-XVIII se generalizan los enterramientos dentro de las iglesias y, con el fin de mantener la secuencia tradicional, cada familia tenía su sepultura en la iglesia en un espacio denominado *jarkelu*.



**KONTATU ERRETRATU HAU**

**Tailerra Getxoko ondarea argazki bidez identifikatzeko**

60 urtetik gorako pertsonak deskribatuko dituzte, ahalik eta zehatzen, lanbide tradizionalen irudiak. Horietako batzuk desagertuta edo desagertzeko bidean daude. Horrela, Getxoko liburutegien bildumako irudiak deskribatzeko datuak biltzarekin batera, sustatzen da parte-hartzaile guztiak ilusionatzen eta animatzen dituen funtzio sozial bat, haien arteko lotura afektiboak sortuz, haien memoria aktibatuz eta iragana gogoratzeko eta biziberritzeko gaitasun handiagoa sortuz.

**CUÉNTAME ESTA FOTO**

**Taller de identificación del patrimonio de Getxo a través de fotografías**

Las personas mayores de 60 años describirán, con la mayor precisión posible, imágenes de oficios tradicionales, algunos de ellos ya desaparecidos o en vías de extinción. De esta forma, al tiempo que se recaban datos para la descripción de las imágenes de la colección de las bibliotecas de Getxo se promueve una función social que ilusiona y anima a todas las personas participantes, creando vínculos afectivos entre ellas, activando su memoria y generándoles una mayor capacidad para recordar y "revivir" el pasado.

Gaztelania.	Castellano.
AJANE-ren egoitzan (c/ Bautista Zabala, 6 bajo, Algorta).	Sede de AJANE (c/ Bautista Zabala, 6 bajo, Algorta).
Urriaren 17an, 18:00etan (60´).	17 de octubre, 18:00 h. (60´).
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Liburutegiak - Bibliotecas de Getxo.	
Zehazteko - A concretar.	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas..





## GETXOKO EMAKUME EZAGUNAK ETA AHAZTUAK





### Ibilbidea

Getxorekin lotura duten emakumeak dira ibilbide honetako protagonistak. Emakume ezagunak, baina baita andre anonimoak ere. Kontatzea merezi duten istorioak, haien presentzia eta ekarpenak berreskuratzeko asmoaz.

## MUJERES CONOCIDAS Y OLVIDADAS DE GETXO

### Recorrido guiado

Las protagonistas de esta ruta son mujeres vinculadas con Getxo. Mujeres conocidas, pero también anónimas. Historias que merecen ser contadas con el objetivo de recuperar su presencia y sus aportaciones.

 Euskara (28-29/10) eta gaztelania (7-8/10).	Euskera (28-29/10) y castellano (7-8/10).
 Pza. San Nikolas-Algorta (7 y 28/10) // Pza. Estación Areeta (8 y 29/10).	Pza. San Nicolás-Algorta (7 y 28/10) / Pza. Estación Areeta (8 y 29/10)
 Larunbata 7, igandea 8, larunbata 28 eta igandea 29, 11:00etan.	Sábado 7, domingo 8, sábado 28 y domingo 29: 11:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Liburutegiak - Bibliotecas de Getxo.	
 <a href="http://www.getxo.eus/algortako-emakume">www.getxo.eus/algortako-emakume</a> (7 y 28/10) // <a href="http://www.getxo.eus/areetako-emakume">www.getxo.eus/areetako-emakume</a> (8 y 29/10)	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.



	Gaztelania.	Castellano.
	San Nikolas plaza, Algorta (Getxo).	Plaza de San Nicolás, Algorta (Getxo).
	Larunbata 21, igandea 22; 10:30ean (90´).	Sábado 21, domingo 22; 10:30 h. (90´).
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Liburutegiak - Bibliotecas de Getxo.		
	<a href="http://www.getxo.eus/ramiro-pinilla">www.getxo.eus/ramiro-pinilla</a>	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

## RAMIRO PINILLA LITERATUR IBILBIDEA

### Literatura ibilbidea

Ramiro Pinilla idazlearen "*Verdes valles, colinas rojas*" trilogian eta beste eleberrri batzuetan zehar egindako ibilbidea da. Paseoan ezagutuko dugu itsasoak bustitako berde horren arrazoia edo gorritz tindatutako paisaien zergatia; Arrigunaga hondartza bisitatuko dugu, Benta...

## RUTA LITERARIA RAMIRO PINILLA

### Ruta literaria

La ruta supone un recorrido por la trilogía *Verdes valles, colinas rojas* y otras novelas del escritor Ramiro Pinilla. Durante el paseo descubriremos el porqué de ese verde bañado por el mar o de los paisajes teñidos de rojo. Visitaremos la playa de Arrigunaga, la Venta...



	10 hizkuntzatan.	10 idiomas
	Algortako Geltokiko plazan	Plaza de la Estación de Algorta
	Edukia eskuratzeko, Inguru aplikazio mugikorra deskargatu behar da, ( <a href="https://inguru.page.link/ondarea">https://inguru.page.link/ondarea</a> ), elkargunera joan eta App-aren barruan "descubre" arloan sartu.	Para acceder al contenido, es necesario descargarse la aplicación móvil Inguru, ( <a href="https://inguru.page.link/ondarea">https://inguru.page.link/ondarea</a> ), ir al punto de encuentro y acceder al área "descubre" dentro de la App Inguru.

## RAMIRO PINILLA IDAZLEAREN AZTARNA LITERARIOA

### Ibilbide autogidatua

Ezagutu Getxon ibilbide autogidatu baten bidez Ramiro Pinilla idazlearen aztarna literarioa. Inguru aplikazioa bitarteko, entzun itzazu bere lanetako atal ederrak herriko leku esanguratsuenak bisitatzen dituzun bitartean. Murgildu autore honen historian esperientzia paregabe eta aberasgarri baten bidez.

## RAMIRO PINILLA, PATRIMONIO LITERARIO DE GETXO

### Ruta autoguiada

Descubre la huella literaria del escritor Ramiro Pinilla en una ruta autoguiada por Getxo. A través de la aplicación Inguru, escucha preciosos fragmentos de sus obras mientras recorres lugares emblemáticos del municipio que inspiró su obra. Sumérgete en la historia de este autor a través de una experiencia única y enriquecedora.

# GETXO



	Euskara.	Euskera.
	Ibaiondo eta Errekagane kaleen bidegurutzea.	Cruce de las calles Ibaiondo y Errekagane.
	Urriaren 25a, eguaztena, 18:00etatik 19:30era.	25 de octubre, miércoles, de 18:00 a 19:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo.		
	627 899 320 – getxo.toponimia@gmail.com	

## ROMOKO TOPONIMIA IBILBIDEA

### Ibilbide gidatua

Ibilbide gidatua Romotik. Bertako izenak, historia eta bitxikeriak ezagutzeko aukera.

Romo, pertsona abizenak sortutako auzo-izena da eta aspaldiko futbol-zelai batek 2 urte baino ez zituen behar izan aspaldiko izen zaharren aurrean betikotzeko. Romo XX. mende hasierako Getxo obreroa da eta gaur egun hori denori baino gehiago.

## RECORRIDO TOPONÍMICO POR ROMO

### Recorrido guiado

Recorrido guiado por Romo, para conocer sus denominaciones, historia y curiosidades.

El origen del nombre del barrio de Romo es un apellido, y un antiguo campo de fútbol no necesitó más que dos años para inmortalizarlo. Romo es un barrio obrero de principios del siglo XX, y hoy en día, es mucho más.

# GETXO



	Euskara.	Euskera.
	Satistegi plaza.	Plaza Satistegi.
	Urriaren 17a, martitzena, 18:00etatik 19:30era.	17 de octubre, martes, de 18:00 a 19:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo.		
	627 899 320 – getxo.toponimia@gmail.com	

## ALGORTA-USATEGI TOPONIMIA IBILBIDEA

### Ibilbidea

Gaur egun Algorta bezala ezagutzen duguna XIX. mendean marinelek sortutako auzoa dela esaten da. Abrara begira dagoen balkoi naturala da, txoko eta hondartza dotoreak ditu, historia aberatsa du eta toki aproposa da kostaldeko geologia eta flora hobeto ezagutzeko.

## RECORRIDO TOPONÍMICO POR ALGORTA-USATEGI

### Recorrido

Se dice que Algorta, tal y como lo conocemos hoy, es un barrio que crearon unos marineros en el siglo XIX. Es un balcón natural que mira al Abra, lleno de rincones elegantes y hermosas playas, con una rica historia. Un lugar excepcional para conocer la geología, y la flora y fauna costeras.



# GETXO



	Euskara.	Euskera.
	San Nikolas plaza.	Plaza San Nicolás.
	Urriaren 11, eguaztena, 18:00etatik 19:30era.	11 de octubre, miércoles, de 18:00 a 19:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo.		
	627 899 320 getxo.toponimia@gmail.com	

## PORTU ZAHARREKO TOPONIMIA IBILBIDEA

### Ibilbidea

Batzuentzat arrantzaleen aspaldiko portua, beste batzuentzat Algortaren jatorrian dagoen auzoa, askorentzat Abrara begira dagoen balkoia; beste askorentzat, ordea, Getxo osoa irudikatzen erabiltzen den ohiko postalea; jai gune magikoa, arratsalde-pasa ederren gunea...

## RECORRIDO TOPONÍMICO POR EL PUERTO VIEJO

### Recorrido

Para algunos, el antiguo puerto pesquero; para otros, el origen de Algorta; para muchos, el balcón que mira al Abra y, para muchos otros, sin embargo, la postal habitual que representa a todo Getxo. Es un enclave festivo mágico, un lugar extraordinario para pasar la tarde...

# GETXO



	Euskara.	Euskera.
	Zubiko plaza.	Plaza del Puente.
	Urriaren 5a, eguena, 18:00etatik 20:00etara.	5 de octubre, jueves, de 18:00 a 20:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo.		
	627 899 320 getxo.toponimia@gmail.com	

## AREETAKO TOPONIMIA IBILBIDEA

### Ibilbidea

Mendetako hareak etxe eder bihurtzen ikusten dira ibilbide honetan, errekek lekuz aldatzen, itsasoak tokiz mugitzen, hondartzak desagertzen, bizileku hutsa jendez betetzen, lur elkorra aberastasun bihurtzen. Burdinaren aberastasuna harri bihurtzen.

## RECORRIDO TOPONÍMICO POR LAS ARENAS

### Recorrido

En este recorrido, veremos arenales centenarios convirtiéndose en hermosas casas, arroyos desplazándose, mares trasladándose, playas desapareciendo, la morada vacía llenándose de gente, la tierra árida convirtiéndose en abundancia o la riqueza del hierro petrificándose.



## ZURIKALDAI NEGURI-KO GOZOAK

### Tailerra

Gozotegi artisau honetan egin izan diren eta gaur egun egiten ditugun opil eta tartak zelan prestatzen ditugun ikusteko aukera izango da.





Era honetako opil eta tartak egingo ditugu: kolineta, espinaka tarta, gurin opila... Denboraren arabera, prestaketa zuzenean egingo dugu, baina beste pauso batzuk aurretik prestatuta izango dira. Zuen galderak erantzuten saiatuko gara eta ikastaroaren amaieran, bertan prestatutako guztiak probatuko ditugu.

## LOS DULCES DE ZURIKALDAI NEGURI

### Taller

Una oportunidad única para ver la elaboración de los pasteles y tartas que se han preparado y se siguen haciendo en esta pastelería artesana.

Haremos colinetas, tartas de espinacas, bollos de mantequilla... Según el tiempo del que dispongamos, los elaboraremos en directo, pero algunos pasos los tendremos adelantados de antemano. Responderemos a vuestras preguntas y, al finalizar el taller, degustaremos todos los dulces que hayamos preparado.

	Euskara.	Euskara.
	Zurikaldai Neguri gozotegian (Neguri Hiribidea, 9).	Pastelería Zurikaldai Neguri (Neguri Hiribidea, 9).
	Urriak 16, astelehena, 17:00etatik 21:00etara.	16 de octubre, lunes, de 17:00 a 21:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Kimetz Garate, Zurikaldai Neguri-ko artisau gozogle maisua - Kimetz Garate, maestro pastelero artesano de Zurikaldai Neguri.		
	ondareanabarmetzen@getxo.eus (info) / ondareabizkaia.eus erreserben weborria (erreserbak)- web de reservas de ondareabizkaia.eus (reservas)	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.



## NERBIOI ITSASADARRA. MAREEN ARTEKO BIZITZA

**Bisita gidatuak argazki- eta ikus-entzunezko erakusketa berrira**

“Nerbioi itsasadarra. Mareen arteko bizitza” erakusketan jakintzak, teknikak, ogibideak, kirolak, errituak, ospakizunak eta gizarte-ohiturak bildu dira: horiek guztiek, ondare paregabea, guztiona, sortu dute Itsasadarrean, mendez mende. Urtebetez ikertzen aritu ondoren, argazki eta bideo argitaragabeen eta elkarriketen bidez osatutako erakusketa aurkeztuko da.





Punta Begoña Fundazioak eta Itsasmuseumek, Itsasadarrak bezala, herriak eta herritarrak lotzen dituen erakusketa hori ezagutzeko gonbit egingo dizute bi kokalekuetan egingo diren bisiten bidez. Getxotik Bilboraino, Hiribildutik Abaraino: itsasaldien arteko bizitzak lotzen dituen bi toki estrategikoetan.

## RÍA DEL NERVIÓN. LA VIDA ENTRE MAREAS

**Visitas guiadas a la exposición fotográfica y audiovisual inédita**

“Ría del Nervión. La vida entre mareas” recoge saberes, técnicas, oficios, deportes, ritos, celebraciones, usos y costumbres que, a lo largo de los siglos, han generado en la Ría un patrimonio único, común y compartido a través de fotografías, vídeos inéditos y entrevistas, fruto de un año de investigación.


Fundación Punta Begoña e Itsasmuseum te invitan a conocer a través de visitas en ambas ubicaciones la muestra que, como la Ría, conecta a pueblos y gentes y se extiende de Getxo a Bilbao y de la Villa a El Abra en dos emplazamientos estratégicos unidos por esta vida entre mareas.

 Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
 Punta Begoña Galeriak, Getxo (sarrera: Ereaga z/g) eta Itsasmuseum, Bilbao (Ramón de la Sota 1 kaia).	Galerías Punta Begoña en Getxo (acceso Ereaga s/n) e Itsasmuseum en Bilbao (Muelle Ramón de la Sota 1).
 Bisitak aldi berean Punta Begoñan eta Itsasmuseumen izango dira: urriaren leian eta 7an, 12:15ean, euskaraz. Urriaren 6an, 12:00etan; eta urriaren 8an, 17:30ean, gaztelaniaz. Gazteen bisitaren eguna eta ordua (12 urtetik gorakoei egokitutako bisita parte-hartzailea): urriaren 6an, 17:00etan, euskaraz. Urriaren 7an, 11:00etan, gaztelaniaz.	Visitas simultáneas en Punta Begoña e Itsasmuseum: 1 y 7 de octubre, a las 12:15, en euskera. 6 de octubre, a las 12:00, y 8 de octubre, a las 17:30 horas, en castellano. Día y hora de la visita joven (visita participativa adaptada a mayores de 12 años): 6 de octubre, a las 17:00, en euskera. 7 de octubre, a las 11:00, en castellano.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Punta Begoña Fundazioa eta Itsasmuseum - Fundación Punta Begoña e Itsasmuseum.	
<b>Laguntzen dute / Colaboran:</b> Getxoko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila - Ayuntamiento de Getxo y Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.	
 Punta Begoñara bisitak, <a href="http://www.puntabegonagetxo.eus">www.puntabegonagetxo.eus</a> Itsasmuseumera bisitak, <a href="mailto:info@itsasmuseum.eus">info@itsasmuseum.eus</a> / 94 608 55 00	Visitas en Punta Begoña <a href="http://www.puntabegonagetxo.eus">www.puntabegonagetxo.eus</a> ; Visitas en Itsasmuseum <a href="mailto:info@itsasmuseum.eus">info@itsasmuseum.eus</a> / 94 608 55 00

**Irisingarritasuna - Accesibilidad:** Punta Begoña gaur egun berreskuratzen ari den monumentua da eta horregatik ez da guztiz irisingarria - Punta Begoña es un monumento en proceso de recuperación, accesible parcialmente.



# GORDEXOLA



## SAN KOSME ERROMERIA

### Bisitaldi gidatua

Gordexolako Udalak San Kosme eta San Damian festaren bailarako agertoki berezia ezagutzeko gonbit egiten digu. Berton ospatzen da jaia, irailaren 26an, hilabetez, Berbizizko Done Joanen basilazaren inguruko landan, eta herritarrek txosnak jartzen dituzte, festetan kuadrillak elkar daitezten. "Herri iragankor" hori bisitaldi gidatu berezi baten eskutik ezagutzeko aukera egongo da. Autobusez iritsiko gara bertara, eta txosna batzuen —xumeenak eta ederkien apainduta daudenak eta erosoan direnak— kanpoaldeak nahiz barrualdeak ikusiko ditugu eta haraneko tradizio berezi horren berri izango dugu.

## ROMERÍA DE SAN COSME

### Visita guiada


El Ayuntamiento de Gordexola nos invita a descubrir el singular escenario de la fiesta de San Cosme y San Damián en el valle. Aquí se celebra el 26 de septiembre y durante un mes. En la campa que rodea la ermita de San Juan de Berbikez, los vecinos levantan sus "txosnas" o cabañas, que acogen los encuentros de cuadrillas durante la celebración de las fiestas. Este "pueblo efímero" podrá conocerse de la mano de una visita guiada especial que nos trasladará en autobús para mostrarnos, tanto el exterior como el interior de algunas, desde las más sencillas a las más exquisitas en decoración y comodidades, y acercarnos a una tradición singular del valle.

 Gaztelania.	Castellano.
 Molinar plazako kioskoa (udaletxearen aurrean).	Kiosko de la Plaza de Molinar (frente al Ayuntamiento).
 Urriaren 7an —larunbata—, 10:30etik aurrera.	Sábado 7 de octubre a las 10:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Gordexolako Udala - Ayuntamiento de Gordexola.	
 946 799 704 (9:00-12:00) / 946 798 061 (16:30-20:30).	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

**Oharrak - Observaciones:** ordu eta erdi iraungo du gehien jota. Oinetako erosoak eta urte-sasioaren arabera arropak (kapusaia, euritakoa...) eramatea gomendatzen da. Familian parte hartzeko jarduera da - La actividad tendrá una duración máxima de hora y media; se recomiendan calzado cómodo y ropa adecuada acorde a la estación (chubasquero, paraguas...). Actividad recomendada a familias.

# GORDEXOLA



## BEHINOLAKO ERROMESAK BEZALA: AGATE DEUNATIK MOLINAR PLAZARA


## COMO LOS ROMEROS DE ANTAÑO: DE SANTA ÁGUEDA A MOLINAR

### Mendiko ibilbide gidatua

Gordexolako Udalak behinolako baselizetarako erromerien erako ibilbide tradizionala egitera gonbidatzen gaitu. Agate Deuna baseliza eta Molinar plazaren arteko mendi ibilibidea egingo dugu, paisaiaz, eraikinez eta naturaz gozatzeko, haraneko historia, tradizioak eta kultura ezagutzeko. Berririoinez ibiltzeko ohitura berreskuratuko dugu.

### Itinerario montañero guiado

El Ayuntamiento de Gordexola invita a los participantes a sumarse a un recorrido tradicional al estilo de las antiguas romerías a ermitas. Realizaremos un paseo montañero entre la ermita de Santa Águeda y la plaza de Molinar, descubriendo en nuestro recorrido el paisaje, los edificios, la naturaleza, para conocer historia, tradiciones y cultura del valle retomando la característica costumbre del desplazamiento a pie.

 Gaztelania.	Castellano.
 Molinar plazako kioskoa (udaletxearen aurrean).	Kiosko de la Plaza de Molinar (frente al ayuntamiento).
 Urriaren 28an –larunbata–, 10:00etatik aurrera.	Sábado 28 de octubre a las 10:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Gordexolako Udala - Ayuntamiento de Gordexola.	
 946 799 704 (9:00-12:00) / 946 798 061 (16:30-20:30).	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

**Oharrak - Observaciones:** lasai ibilita, hiru ordu iraungo du gehien jota, bidexka eta mendi-bideetatik. Oinetako erosoak eta inguruaren eta urte-sasoaren arabera jantziak (kapusaia, euritakoa...) eta ur nahikoa eramatea gomendatzen da. 300 metro inguruko malda du ibilibideak (aldapan gora eta behera); ez zaie gomendatzen mugitzeko zailtasunak edo lesioak dituztenei. - La actividad tendrá una duración máxima de unas 3 horas a paso tranquilo, por sendas y pistas de montaña. Se necesitan calzado y ropa adecuados al entorno y a la estación (chubasquero, paraguas...), además de provisión de agua. El recorrido acumula un desnivel total de alrededor de 300 m (subida y bajada); no recomendado para personas con dificultades de movilidad o lesiones.



# GORLIZ



	Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
	Ibarreta plaza.	Plaza Ibarreta.
	Urriaren 28an, 19:00etan.	28 de octubre a las 19:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Gorlizko Udala - Ayuntamiento de Gorliz.		
	946774348. info@visitgorliz.eus - www.visitgorliz.eus/	
	946774348. info@visitgorliz.eus	



Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

**Urriaren zehar / A lo largo del mes de Octubre:** Hitzaldi batzuk, Gorlizko eskolan, ikasleentzat - Varias conferencias en la escuela de Gorliz para alumn@s de la escuela.

## ESPLORATU EUSKAL MITOLOGIAREN MISTERIOAK

Hitzaldia Aritza Bergararen eskutik

Ezagutu euskal mitologia Aritza Bergararen eskutik! Halaber, idazleak bere azken lanak aurkeztuko ditu: *Izena duen guztia omen da*, umeentzat eta *Badira, bagara*, irakurle guztiarentzat, ilustrazio zoragarriak. Ez galdu euskal mitologiaren mundu misteriotsuan sakontzeko aukera. Zure zain gaituzu!

## EXPLORA LOS MISTERIOS DE LA MITOLOGÍA VASCA

Conferencia por Aritza Bergara

¡Descubre la mitología vasca de la mano de Aritza Bergara! Este escritor también presentará sus últimas obras: *Izena duen guztia omen da* para público infantil y *Badira, bagara* para todos los públicos con ilustraciones espectaculares. No te pierdas esta oportunidad de adentrarte en el misterioso mundo de la mitología vasca. ¡Te esperamos!



	Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
	Sertutxena eraikina (Eloisa Artaza 1).	Edificio Sertutxena (Eloisa Artaza 1).
	Urriaren zehar, astelehenerik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara / 16:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara.	Octubre, de lunes a sábado: 10:00 a 14:00 / 16:00 a 19:00 h. Domingos y festivos: 10:00 a 14:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Gorlizko Udala - Ayuntamiento de Gorliz.		
	946774348. info@visitgorliz.eus, www.visitgorliz.eus/	

**Erreserbak- Reservas:** Librea - Libre.



## PERTSONAIA MITOLOGIKOEN ERAKUSKETA

Erakusketa. Komisarioa Aritza Bergara

Anbotoko Mari, Tartalo, Basajaun, Gizotxo... Zenbat dakizu pertsonaia mitologiko hauen inguruan? Erakusketa honen bidez pertsonaioak hobeto ezagutzeko aukera izango duzu.

## EXPOSICIÓN SOBRE PERSONAJES MITOLÓGICOS

Exposición comisariada por Aritza Bergara

La Dama de Anboto, Tartalo, Basajaun, Gizotxo... ¿Qué sabes de estos personajes mitológicos? Mediante esta exposición los podrás conocer mucho mejor.



# GORLIZ



## GAU BALTZA




### Ekitaldia

Gau magiko honetan Gorliz euskal kulturaren murgiltzen da eta antzinako tradizioak ekartzen ditu gogora. Horrez gainera, musikaz, dantza tradizionalaz, janari tipikoaz eta askoz gehiagoz gozatu dezakezue. Izan ere, Gau Baltza aukera paregabea da euskal kultura eta mitologia hurbiletik ezagutzeko eta Gorlizko gau ahaztezin batez gozatzeko.

## GAU BALTZA

### Evento

Esta noche mágica en la que Gorliz se sumerge en la cultura vasca y revive sus tradiciones más antiguas, podrás disfrutar de música, danzas tradicionales, comida típica y mucho más. La celebración de Gau Baltza es una oportunidad única para conocer de cerca la cultura y mitología vasca y disfrutar de una noche inolvidable en Gorliz.

 Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
 Ibarreta plaza.	Plaza Ibarreta.
 Urriaren 31n, 17:00etatik 23:00etara.	31 de octubre, de 17:00 a 23:00 h.

**Antolatzailea / Organiza:** Gorlizko Udala - Ayuntamiento de Gorliz.

 946774348. [info@visitgorliz.eus](mailto:info@visitgorliz.eus), [www.visitgorliz.eus/](http://www.visitgorliz.eus/)



# GORLIZ



## GORLIZKO IKUZTEGIAREN MEMORIA BERRESKURATZEN

### Dokumentala eta argibide -taula

Ikuztegiaren atal bat zaharberritu da oraintsu, eta egun argibide-taula bat jarri da bertan, herriko bizitzan duen garrantzia azpimarratzeko asmoz. Zatoz eta ikasi nola garbitzen zen arropa garbigailurik ez zegonean. Taulan, halaber, zirriborro bat dago behinolako ikuztegia nolakoa zen ikusteko, baita garaiko testingantzak ere, joan den mendera garamatzatenak. Ez galdu Gorlizko altxor historiko hori ezagutzeko aukera!

Kokalekua: Gorlizko ikuztegia.

<https://goo.gl/maps/SCtGQXh6FZUyQRMw6>

LATSARIAK – LAVANDERAS DOKUMENTALA

*Latsariak* – *Lavanderas* dokumentalak (2022an estreinatua) emakume latsarien bizipenak eta testigantzak bildu ditu. Con Ciencia y Arte elkarteak sustatu du proiektua, emakume haiek egiten zuten lan neketsua gogora ekarri nahian. Izan ere, zeregin hura nahitaezkoa izan zen familien eta herrien osasungarritasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko. Film ertain horretan 13 emakumek beren esperientziak eta ikuztegiak nolakoak ziren eta non kokatzen ziren kontatzen dute.

## RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA DEL LAVADERO DE GORLIZ

### Documental y panel






El lavadero ha sido recientemente restaurado parcialmente y ahora cuenta con un panel informativo que detalla su importancia en la vida del pueblo. Ven y aprende sobre cómo se lavaba la ropa cuando no había lavadoras. El panel incluye un boceto de cómo era antiguamente y testimonios de la época que te transportarán al siglo pasado. ¡No te pierdas la oportunidad de conocer esta joya histórica de Gorliz!

Ubicación: Lavadero de Gorliz

<https://goo.gl/maps/SCtGQXh6FZUyQRMw6>

DOCUMENTAL LATSARIAK – LAVANDERAS

El documental "LATSARIAK – Lavanderas", estrenado en 2022, recoge las vivencias y los testimonios de las mujeres lavanderas. El proyecto, impulsado por la asociación Con Ciencia y Arte quiere recordar el duro trabajo realizado por ellas, el cual ha sido imprescindible, para mantener la salubridad y la calidad de vida de las familias y de la población. Este mediodocumental narrado por 13 mujeres nos cuenta sus experiencias, de cómo eran los lavaderos y dónde se localizaban.

 Euskara / Gaztelania.	Euskara / Castellano.
 Gorlizko Udala.	Ayuntamiento de Gorliz.
 Urriaren 20an, 19:00etan.	20 de octubre, 19:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Gorlizko Udala - Ayuntamiento de Gorliz.	
 946774348. info@visitgorliz.eus / www.visitgorliz.eus/	
 946774348. info@visitgorliz.eus	



# IURRETA



## KANPAI-DEIAK ETA ESANAHIAK

### Hitzaldia eta proiektzioa

Kanpandorreetako kanpai-hots ezberdinak bereiztea zaila egiten zaigu gaur egun. Jakintza hori galtzen ari garen arren, lurretako adinekoek ondo gogoan dute zer albistiren berri ematen zuten eskuz jotako kanpai-hots haietako bakoitzak.






Ekintza honetan kanpai-dei ezberdinak zuzenean entzun eta horien esanahia ezagutzeko aukera izango dugu. Horrekin batera, lurretako kanpai nagusiaren historia ere ezagutuko dugu. Ekitaldiari amaiera gozo bat emateko, tostadak jango ditugu.

## LOS TOQUES DE CAMPANAS Y SUS SIGNIFICADOS

### Charla y proyección

Hoy día nos resulta difícil distinguir entre los diferentes toques y avisos de las campanas de los campanarios. Pese a que estemos perdiendo ese conocimiento, la gente mayor de lurreta recuerda bien qué anunciaba cada uno de aquellos repiques manuales.

Mediante esta actividad, tendremos la oportunidad de oír en directo diferentes toques y entender su significado. Además, conoceremos la historia de la campana principal de la localidad. Y, para finalizar la actividad de un modo dulce, comeremos tostadas.

 Euskara.	Euskera.
 Aita San Migel plaza.	Plaza Padre San Miguel.
 Urriak 21, 17:00etan.	21 de octubre, a las 17:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> lurretako Udala eta Gerediaga Elkarte - Ayuntamiento de lurreta y Gerediaga Elkarte.	
 673005981	
 <a href="https://ondareabizkaia.eus">https://ondareabizkaia.eus</a>	

**Irisgarritasuna - Accesibilidad:** Ez - No  
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.



# IZURTZA

## ERDI AROAN JATEN

### Hitzaldia Juan Manuel González Cembellinen eskutik eta dastaketa

Etxaburuko dorrea agertoki gisa —eta jantoki gisa— erabiliko da ondare (in)material den horretara, gastronomiara, hurbiltzeko. Zer jaten eta edaten zen eskualdean Erdi Aroan? Ohiko jakietatik preziatuenetarainoko ibilbidea egingo dugu. Jateko moduak ere ezagutuko ditugu: zenbat aldiz jaten zen egunean? Ba al zegoen mantelik eta ezpainzapiarik garai hartan?...




Eta gaian bete-betean sartzeko, jateko eta produktu horietako batzuk dastatuko ditugu. Batzuk oso tradizionalak dira, hala nola Izurtzako gazta eta ogia, edo inguruko txakolina. Sofistikatuagoak diren beste batzuk, espezia askorekin onduak.

## COMIENDO EN LA EDAD MEDIA

### Conferencia por Juan Manuel González Cembellín y degustación

La torre de Etxaburu servirá de escenario —y de comedor— para acercarnos a ese patrimonio (in)material que es la gastronomía. ¿Qué se comía y bebía en la comarca en la Edad Media? Un recorrido desde los platos más habituales hasta los más codiciados. También conoceremos los modos de comer: ¿cuántas veces se comía al día?, ¿había manteles y servilletas en aquellos tiempos?...

Y para tener clara la materia degustaremos algunos de aquellos platos y productos. Algunos muy tradicionales, como el queso y el pan de Izurtza o el txakolí de la zona. Otros más sofisticados, aderezados con muchas especias.

 Gaztelania.	Castellano.
 Lejarza Auzoa, 11, Fosroc Euco eta Talleres Izurtza artean dagoen parkingean.	Lejarza Auzoa, 11; en el parking que está entre Fosroc Euco y los Talleres Izurtza.
 Urriak 29, bi talde: 10:30ean eta 12:30ean.	29 de octubre, dos grupos, a las 10:30 y a las 12:30 h.

**Antolatzailea / Organiza:** Izurtzako Udala eta Gerediaga Elkarte - Izurtzako Udala eta Gerediaga Elkarte.

 673005981

 <https://ondareabizkaia.eus>

**Irsgarritasuna - Accesibilidad:** Ez - No  
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.



# KARRANTZA HARANA / VALLE DE CARRANZA



**ARTZAIN-KULTURA KARRANTZAN:  
DASTATZEN, TRANSMITITZEN ETA IRAUTEN  
DUEN IRAGANAREN OIHARTZUNA**

**LA CULTURA PASTORIL EN CARRANZA.  
ECOS DE UN PASADO QUE SE SABOREA,  
SE TRANSMITE Y PERSEVERA**

## Esperientzia

Karrantzako ardiak, gure haraneko autoktonoak, artzain familia handiak sortu dituzte historian zehar. Gizonak artzaintza lan gogorrenen arduradunak ziren: zaintza, trashumantzia, jeztea eta abar. Eta emakumeak, baserriko bizitzaz eta zeregin delikatuenez arduratzen ziren.

Artzaintzaren kultura, bere arkitektura, toponimia, tradizioek, gastronomia eta abarrek bizirik diraute gure haranean, gaur egungo ukituekin baina esentzia galdu gabe.





Bisita gidatu honetan bizimodu horretan murgilduko gara, egun horretan Karrantzan ospatzen den abere, nekazaritza eta artisauek azoka aprobetxatuz, latxa eta karrantzar ardiak lehiaketarekin eta bere ondarea dastatuz —hitzaren zentzurik zabalenean—.

## Experiencia

La oveja carranzana, autóctona de nuestro valle, ha gestado a lo largo de la historia grandes familias de pastores. Ellos, los encargados de las labores más rudas del pastoreo: cuidado, trashumancia, ordeño... Y ellas, las mujeres, encargadas de la vida en el caserío y los quehaceres más delicados.

La cultura del pastoreo, su arquitectura, toponimia, tradiciones, gastronomía, etc. pervive en nuestro valle, con toques actuales, pero sin perder la esencia.

En esta experiencia nos sumergiremos en esta forma de vida, aprovechando la feria ganadera, agrícola y artesana que se celebra este día en la localidad, con su concurso de oveja latxa y carranzana y "saboreando" —en el sentido más amplio de la palabra—, su rico patrimonio.

 Gaztelania.	Castellano.
 Karrantzako Udaletxearen Plaza.	Plaza del Ayuntamiento de Karrantza.
 Urriak 7, larunbata. 11:30ean.	Sábado 7 de octubre a las 11:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Turismo Karrantza - Oficina de Turismo Karrantza.	
 946.806.928 / 696.446.301	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

# KARRANTZA HARANA / VALLE DE CARRANZA



 Gaztelania.	Castellano.
 Karrantzako Turismo Bulegoa, Ambagasuas, 22.	Oficina de Turismo Karrantza, Barrio Ambagasuas, 22.
 Urriak 21, larunbata, 10:00etan.	Sábado 21 de octubre a las 10:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Turismo Karrantza - Oficina de Turismo Karrantza, Barrio Ambagasuas, 22.	
  946.806.928 / 696.446.301	

Leku kopuru mugatua - Plazas limitadas.

## KARRANTZA: "EDOSKI" DUGUNA

Solasaldia Miguel Sabino Díaz-en eskutik

Ezagutzen duzu Maria Juanaren historia? Badakizu zer tradizio zuten artzain karrantzarrek beren artaldearekin mendira iristean? *Alampar* hitza entzun al duzu inoiz?

Miguel Sabino Díaz-en eskutik, etnografoa eta gure historiako aditua, gure haraneko ohiturak, toponimia eta identitatea ezagutuko ditugu.

## KARRANTZA: LO QUE HEMOS "MAMAO"

Charla por Miguel Sabino Díaz

¿Conoces la historia de Mariajuana? ¿Sabes que tradición tenían los pastores carranzanos al llegar al monte con su rebaño? ¿Te suena el verbo *alampar*?

De la mano de Miguel Sabino Díaz, etnógrafo y experto en nuestra historia nos sumergiremos en las costumbres, toponimia e identidad inherente a nuestro valle.



 Gaztelania.	Castellano.
 Karrantzako Turismo Bulegoa.	Oficina de Turismo Karrantza.
 Urriak 14 eta 28, larunbatak, 10:00etatik 14:00etara.	Sábado 14 y 28 de octubre de 10:00 a 14:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Turismo Karrantza - Oficina de Turismo Karrantza, Barrio Ambagasuas, 22.	
  946.806.928 / 696.446.301	

**Oharrak - Observaciones:** Sarrera librea - Entrada libre.

## ATZOKO ZEIN GAURKO ISTORIOAK KONTATZEN DITUZTEN PUNTADAK

Erakusketa

Gure bisitariak, jantzien bidez, historian zehar ibilbidea egingo dute. XII. Mendean hasiko dira gure euskal-jantzi tradizionalekin; garai guztietako jantziak, leku eta bizimodu bakoitzaren ezaugarri bereziekin eta XXI. mendean amaituko dute ibilbidea, artilea eta oihala atzean utzita, paperean egindako diseinu berriez gozatzeko.

## PUNTADAS QUE CUENTAN HISTORIAS DE AYER Y DE HOY






Exposición

Nuestros visitantes harán un recorrido a través de la historia mediante trajes. Comenzarán en el siglo XII con nuestros trajes tradicionales vascos; trajes de todas las épocas, con las características tan particulares de cada lugar y de cada forma de vida, y finalizarán en el siglo XXI dejando la lana y la tela atrás para disfrutar de los nuevos diseños hechos en papel.



# KORTEZUBI SANTIMAMIÑE



 Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
 Santimamiñeko Informazio gunea.	Punto de información de Santimamiñe.
 Urriak 7, igandea 12:00etan.	Domingo, 7 de octubre, 12:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Santimamiñe.	
 	944 651 657 – santimamine@bizkaia.eus

**Oharrak - Observaciones:** Publiko guztientzat - Todos los públicos.

## KONDAIRAZKO PAISAIA

### Ipuin kontaketa






Jose Migel Barandiaranek Santimamiñeko haitzuloa aztertu zuenean, ez zuen bakarrik atariko aztarnategian zegoen kultura materiala berreskuratu. Horrekin batera, galtzar zegoen ondare immateriala ere bereganatu zuen, antzinako kondaira mitologikoz osatua. Belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititutako kontakizun horiek, Ereñozarreko gailurrean, Omako haranean eta kobazuloaren sakoneran hedatu eta ezagun egin ziren. Urte asko geroago, XXI. mendeko ipuin kontalari batek gure ondarearen parte diren kontakizun magiko horietan murgilduko gaitu, jasotako oinordetzan.

## UN PAISAJE LEGENDARIO

### Cuentacuentos

Quando José Miguel de Barandiarán estudió la cueva de Santimamiñe, no se limitó a recuperar la cultura material que contenía el yacimiento del vestíbulo; recuperó también un legado inmaterial que estaba a punto de perderse, formado de relatos legendarios y mitológicos que, transmitidos oralmente de generación en generación, rodeaban la cumbre de Ereñozar, el valle de Oma y las profundidades de la cueva. Muchos años después, un cuentacuentos del siglo XXI nos hará partícipes de esos relatos mágicos que también forman parte de nuestro patrimonio, de la herencia recibida.



 Euskara.	Euskara.
 Santimamiñeko informazio bulegoa.	Oficina de información de Santimamiñe.
 Igandea, urriak 29, 12:00etan.	Domingo, 29 de octubre, a las 12:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Santimamiñe.	
 	944 651 657 – santimamine@bizkaia.eus

**Oharrak - Observaciones:** Jarduera hau 7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago - Esta actividad está dirigida a niñas y niños de entre 7 y 12 años.

## URDAIBAICO PAISAIK

### Haurrentzako tailerra

Paisaia, historia liburu handi bat bezalakoa da; bertan irakurri ahal izango dugu giza jarduera nola garatu den historiaurretik, eta baita gizakion jardunak klimarekin, florarekin eta faunarekin izan duen harremana. Tailer honetan behatzaileak prestatu nahi ditugu, behatzailerik gabe ez baitago birsorkuntzarik eta, beraz, ez dago paisaiarik. Paisaiak natura eta ondarea batzen ditu. Diziplina berrien bidez, paisaiaren eraldaketa ezagut dezakegu, eta gizakiak funtsezko eginkizuna izan du aldaketa horietan.

## PAISAJES DE URDAIBAI

### Taller infantil

El paisaje es como un gran libro de historia donde poder leer cómo ha evolucionado la actividad humana desde la Prehistoria y su relación con el clima, la flora y la fauna. En este taller queremos formar a observadores, ya que sin observador no hay recreación y, por lo tanto, no hay paisaje. Entendemos el paisaje como totalizador de naturaleza y patrimonio. A través de nuevas disciplinas podemos conocer la transformación del paisaje y como el ser humano ha tenido un papel fundamental en esos cambios.

# LANESTOSA



## LANESTOSAKO ARKU DANTZA





### Bisitaldi gidatua

Ibilbide gidatua Lanestosako Alde Zaharretik, dantzariak azken bi mendeetako hainbat garaitan egindako ibilbideak eta egun arte iraun duen Erdi Aroko esparru historikoa ikusteko.

## LA DANZA DE LOS ARCOS DE LANESTOSA

### Visita guiada

Un recorrido guiado por el casco histórico de Lanestosa. En él apreciaremos los distintos recorridos de los dantzaris en diferentes épocas a lo largo de los dos últimos siglos y el espacio histórico medieval que ha perdurado hasta nuestros días.

 Gaztelania.	Castellano.
 Lanestosako pilotalekuaren aurreko aparkalekua.	Parking del frontón de Lanestosa.
 Urriaren 21ean –larunbata– eta 22an –igandea–, 11:30ean.	Sábado 21 y domingo 22 de octubre, a las 11:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Lanestosako Udala eta Lanestosako Kultur Elkarte - Ayuntamiento de Lanestosa y Asociación Cultural Historias de Lanestosa.	
 607217424 - 946806116	





## GAZTEDI SOKATIRA TALDEA: LAUKIZEN ALDE TIRAKA

### Hitzaldia, erakustaldia eta tailerra

Laukizko Gaztedi Sokatira taldeak, 50 urte baino gehiago daramatza kirol hau praktikatzen eta Laukiz izena munduan zehar eramaten. Zaila da Laukizen Klub honekin lotuta egon ez den edo orain lotuta ez dagoen familia bat aurkitzea.





Hitzaldi-erakustaldi-tailer honetan, klubaren hastapenak kontatuko dizkizuegu, eta kirol honen nondik norakoak ezagutuko ditugu. Halaber, zuzeneko erakustaldi bat ikusteko aukera izango dugu, gero praktikatzen ikasteko.

## GAZTEDI SOKATIRA TALDEA: "TIRANDO" A FAVOR DE LAUKIZ

### Charla-demostración-taller

Gaztedi Sokatira Taldea lleva más de 50 años practicando este deporte y llevando el nombre de Laukiz por todo el mundo. Es difícil encontrar una familia que no haya estado ligada o lo esté ahora con este Club.

En esta charla-demostración-taller, os contaremos los inicios del club, y conoceremos los entresijos de este deporte. Asimismo, tendremos oportunidad de ver una demostración en directo para luego poder aprender a practicarlo.

 Euskara / Gaztelania.	Euskera / Castellano.
 Laukizko Lauaxeta enparantza.	Laukizko Lauaxeta Enparantza.
 Urriaren 21ean, 11:30ean.	21 octubre, a las 11:30 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Laukizko Udala / Gaztedi Sokatira Taldea - Ayuntamiento de Laukiz / Gaztedi Sokatira Taldea.	
 94.615.10.51, euskara@laukiz.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.



# LEIOA



## LEIOA - ARBORETUM IBILBIDE BERDEA





Leioako zuhaitz esanguratsuen ibilbide gidatua EHuko Arboretumera

Sakoneta eta udaletxeo haritzetatik abiatuko gara, Sarrienako artea eta Horoskopoko Parkea bisitatu bidean, eta Arboretumak eskaintzen digun biodibertsitate begetalean murgilduko gara jarraian, bost kontinenteetako zuhaitz eta landareekin. Zuhaitzak ez dira soilik botanikaren aztergaia; sakon errotuta daude inguruko kulturen, espiritualetan, historian, ekonomian... Zientzia eta Teknologia Fakultateko eta Nakusarbe Elkartearen ikertzaileek gidatuko gaituzte.

## RUTA VERDE LEIOA – ARBORETUM

Ruta guiada de los árboles significativos de Leioa al Arboretum de UPV

Partiremos de los robles de Sakoneta y del Ayuntamiento, pasaremos por la encina de Sarriena, Parque del Horóscopo y nos adentraremos en la biodiversidad vegetal que nos ofrece el Arboretum, con árboles y plantas de los cinco continentes. Los árboles no son sólo un objeto de estudio de la botánica; están profundamente enraizados en la cultura de su entorno, en la espiritualidad, en la historia, en la economía... Estaremos guiados por personas investigadoras de la Facultad de Ciencia y Tecnología y de la Asociación Nakusarbe.

 Euskara / Gaztelania (aukeran).	Euskara / Castellano (a elegir).
 Sakonetako haritza (kiroldegia-eremuan).	Roble de Sakoneta (junto al polideportivo).
 Igandeetan, urriak 8 (familiak); 15, 22 eta 29 (29an euskaraz); 10:30etik 13:30era.	8 de octubre (familias), 15, 22 y 29 (el 29 en euskera), de 10:30 a 13:30 h.
<b>Antolatzailea/ Organiza:</b> Leioako Udala, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Nakusarbe Elkartearen laguntzarekin - Ayuntamiento de Leioa, con la colaboración de la Universidad del País Vasco y la Asociación Nakusarbe.	
 946072576; udalhezkontza@leioa.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

# LEKEITIO



## LEKEITIOKO ERREKAK: EMAKUMEEN LANTOKI ETA BILGUNE

### Erakusketa

Lekeition izan ziren erreken (garbitegiak) memoria berreskuratu nahi izan dugu erakusketa honekin. XIX. mendetik aurrera errekek eraiki ziren udalerrri ia guztietan arropak eta bestelako ehun eta oihalak garbitzeko.

Lan gogor hori emakumeek egiten zuten, hasieran ibai ertzetan, geroago eraikitako erreketan, herritarren osasuna eta bizi kalitatea mantentzeko ezinbestekoa izan zena. Lantoki horiek, emakumeen sozializazioarako espazio ere bihurtu ziren, etxeetako lan erreproduktiboa espazio publikora ateraz.

	Euskara.	Euskera.
	Kultur Etxeko Eskolape aretoa.	Sala Eskolape de la Kultur Etxea.
	Urriaren 6tik 8ra eta 11tik 15era, 18:00etatik 20:00etara.	Del 6 al 8 y del 11 al 15 de octubre, de 18:00 a 20:00 h.
<b>Antolatzailea / Organiza:</b> Lekeitioko Udaleko Berdintasun batzordea eta Artxibo Zerbitzua - Comisión de Igualdad y Servicio municipal de Archivo del Ayuntamiento de Lekeitio		

## LOS LAVADEROS, LUGAR DE TRABAJO Y DE ENCUENTRO DE LAS MUJERES

### Exposición

